

Uztaila

1



Álvaro Ortega, Juan Mari Aburto eta Iñigo Pombo.

Bilera Bilboko Alkatearekin.

Uztailaren 7an Euskal Gorrakeko presidentea Juan Mari Aburto Bilboko Alkatearekin eta Gizarte Ekintzako Zinegotzia den Iñigo Pomborekin bildu zen. Bilera horretan, hiriburuko pertsona gorren kolektiboari eragiten dioten hainbat gaitaz mintzatzeaz gain, gizarte nahiz irisgarritasun alorrean dituzten beharrianak aztertu zituzten. Bide batez, Álvaro Ortega, Euskal Gorrakeko kide den Bilboko Pertsona Gor eta Zeinu Hizkuntzako Hiztunen Elkarte (Bizegor) aurkeztu zien, euren bazkideen beharrianak mahaigaineratuz eta aldarrikatuz.

2



Benjamín Conde (EG), Maitane Tocino (Basque Tour), Álvaro Ortega (EG), Gotzone Azpitarte (Bilbao Jai Alai) eta Andrés Ginés (Travel for all).

Bilera Basque Tourrekin.

Uztailaren 8an Basque Tourrekin, Eusko Jaurlaritzak turismoa sustatzeko sortutako agentziarekin, bildu ginen urriaren 8tik 11ra Bilbon ospatutako Europako Ikasle Gorren Mintegia eta EDSUren (Europako ikasle gorren batasuna) Biltzarraren antolakuntza zehazteko.



Pere Cantenys (EDSU), Iranzu Arginzoniz (Bilbao Jai Alai), Álvaro Ortega (EG), Gotzone Azpitarte (Bilbao Jai Alai), Andrés Ginés (Travel for all), Cristina Campo (CJS-EG), Aitor Bedialauneta (CJS-EG) eta Sonia (Travell for all).

Bizkaia frontoirako bisitaldia.

Uztailaren 13an EDSUren Europako Mintegiaren antolatzaileek (EG, EDSU eta GGB-EG) Bizkaiko Frontoia bisitatu zuten. Izan ere, ekitaldi-egitarauaren barruan frontoirako bisitaldia, euskal kirolen erakustaldia, pilota partidua eta euskal gastronomiaren dastaketa eskaini nahi zituztenez, frontoira bertaratu eta jarduerak prestatzeko zehaztasun guztiak lotu zituzten.

Iraila



Jokin Freire (EGko Politika Gaietan eta Elkarte-Sarearen Batzordea), Rafael Hernández (Gipuzkoako Foru Aldundiko Teknikaria), María (Aransgiko ordezkaria) eta Álvaro Ortega (EGko presidentea).

Bilera Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

Irailaren 17an Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako pertsona gorren kolektiboaren ordezkariak bilera batera deitu zituen, zeinu hizkuntzako interpretazio zerbitzuen nahiz irisgarritasun arloetan kolektiboak dituen beharrianak aztertzeke asmoz. Bilera horretan Euskal Gorrak eta Aransgiko ordezkariak parte hartu zuten.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia.

Bilera Gipuzkoako Ahaldun Nagusiarekin .

Irailaren 23an, asteazkena, Gipuzkoako Ahaldun Nagusia den Markel Olano eta Gizarte Ekintzako Diputatua den Maite Peñarekin bildu ginen. Bilera horretan, Euskal Gorrakeko presidentek Federazioaren xedea nahiz Gipuzkoan egiten ari garen lana azaldu zituen, baita Gipuzkoako pertsona gorren beharrianak mahai ganean jarri ere.



Álvaro Ortega manifestua irakurtzen.



Vitoria-Gasteizeko kaleetan zehar egindako manifestazioaren burua.



Foto con los representantes de las entidades de personas sordas y de la vida política: Partido Popular Vasco, Aspasor, Arabako Gorra, Euskal Gorra, PNV y Bildu.


Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna.

Irailaren 27an, larunbata, Vitoria-Gasteizeko Obispo Fernández de Piérola Lorategietan Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna ospatu genuen. Jende andana bertaratu zen, pertsona gorra nahiz alderdi politikoetako hainbat ordezkari tartean. Egunari heltzeko, EGko Ohorezko Presidente den Fernando Pascual Amorrortuk ongietorria eman eta manifestazioa egin genuen Gasteizko kaleetan barna. Ondoren eta egun osoan zehar, hainbat aisialdi-ekintza eta aldarrikapen jardura gauzatu genuen: standak, spray-margo tailerrak, aurpegi-margoketa, papiroflexia, emakume gorren antzezlaria, zeinu hizkuntzako abestiak Aitor Ordóñezen eskutik, Irati Pérezen erakustaldi artistikoa eta Miguel Ángel Sampedroren olerki irakurketa.



Bertaratutakoak manifestua irakurri bitartean.

Fernando Pascual bertaratukoentzako ongietorri hitzaldia ematen.



Euskal Gorra*k* ibili badabil !!

Julio

Uztailak 1 eta 2

Hizkuntzen Europako Markoaren gainean CNSEk emandako ikastaroan parte hartu.

Uztailak 6

Bilera Arabako Gorraekin.

Uztailak 7

Bilera Bilboko Alkatearekin.

Uztailak 8

Bilera Basque Tourekin.

Uztailak 13

Bilera EDSUrekin (European Deaf Students' Union).

Uztailak 13

Bizkaia Frontoirako bisitaldia.

Uztailak 29

Euskal Gorrakeko Teknikari Taldearen koordinazio bilera.

Uztailak 29

Euskal Gorrakeko Zuzendaritza Batzordearen bilera.

Abuztua

Udako oporraldia dela eta, abuztuan zehar Euskal Gorra*k* itxita egon da. Hala ere, Zeinu Hizkuntzako Interpreteen Euskal Zerbitzuak normaltasunez funtzionatu du hiru lurraldeetan.

Iraila

Irailak 4

EDSUren Europako I Mintegiaren antolakuntza-taldearen bilera.

Irailak 17

Bilera Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

Irailak 23

Bilera Gipuzkoako Ahaldun Nagusiarekin eta Gizarte Ekintzako Foru Diputatuarekin.

Irailak 26

Pertsona Gorren Nazioarteko Egunaren Ospakizuna.

Irailak 29

Fekoorek antolatutako ezgaitasunaren gaineko jardunaldian parte hartu.